

2003-01-17
kioskoa

Iban Arregi

Islada

Komunikabideek, euren ideologia gorabehera, errealitatearen islada izan behar lukete, izan behar dute. Askotan, baina, benetan gertatzen dena ezkutatu egiten dute. «Gure abokatuek erraz irabazi dute» esaldiarekin jaso zuen atzo **Gara**-k Arnaldo Otegi Auzitegi Goreneko prozesuaz egindako balorazioa. Prozesua objetibitate minimo batekin segitu duenak badaki hori horrela izan dela. Horregatik beharbada, atzo, Auzitegi Goreneko prozesua bukatu ondoren, hari buruzko hitzik ez zuten argitaratu **El Mundo**, **Abc**, **La Razon**, **El Pais** eta **El Diario Vasco** egunkariak, nahiz eta kaltetuek beraiek prozesuari buruzko balorazioa egin herenegun. Kontua hori delako, beharbada: errealitatea ezkutatzea. Batzutan, askotan, ezer ez argitaratuz. Eta beste batzutan, beste askotan, komeni den informazioa komeni den bezala argitaratuz. Adibidez, atzo, **El Correo**-n, «Fiskaltzak eta Estatuaren abogautzak frogatutaz jo dute Batasunaren ETArekiko lotura» titulua egin zuten. Eta adibidez, asteazkenean, **El Mundo**-k, **Abc**-k eta **La Razon**-ek oso-oso titulu antzekoa egin zuten, sakoneko auziari ia-ia heldu gabe —«EHren zinegotzi batek dioenez, ETaren atentatuen kondekak ez du ezertarako balio»—. Eta asteazkenean bertan izan zen okerragorik ere, **El Pais**-en, esaterako. «Batasunaren lekuko batek konfirmatu egin ditu alderdi horren etakideen aldeko kanpainak» titulua egin zuen egunkari horrek; baina «lekuko» hori, berez, Euskal Presoak Euskal Herrira kanpainari buruz ari zen, eta ez, horrenbestez, «alderdi horren» kanpainari buruz, Euskal Presoak Euskal Herrira kanpaina Batasuna baino zabalagoa delako, eta izan delako. Eta esatekotan, gainera, presoan aldeko kanpaina esan beharko litzateke, eta ez etakideen aldekoa... Errealitatea isladatu nahi bada, behintzat.

euskaldunon 3.760. zenbakia
Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administratzaio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezakaria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Begoña Zubelzu

Publizitatea: Igor Sota

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidia: 72564 E. Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA


ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo




hizpideak

Aurrekontuez haratago

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak EAEko 2002ko aurrekontuak baliogabetu ditu. Erabakiak, berez, ez du izango ondorio aipagarriarik instituzioen jardueran, aurrekontu haiek exekutututa daudelako eta, batik bat, 2003ko aurrekontuak onartuta daudelako. Aurten aurrekontuak onartuta egoteak —eta

ez luzatuta— saihesten du ondorio larriak izatea. Hala ere, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren epaiak baditu esanahi garrantzitsuak. Ustekabea ez bada ere, Espainiako instituzioen arteko lotura estua erakutsi du. Beste behin ere, PPren gobernuak auzitegi nagusien sintonia bermatuta daukala egiaztatu ahal izan da. PPK ez du zirrikitorik utzi nahi: abertzaletasunaren helburuak urik gabe utzi nahi ditu, baita Europan ere (*Napolitano txostenarekin* gertatutakoa kasu). Horretarako, boteregu-

ne guztiak erabiltzeko asmoa agertu du behin baino gehiagotan. Auzitegi Konstituzionalaren erabakia Eusko Jaurlari-tzako agintarien zilegitasuna auzitan jartzeko erabiliko du, PSOEren laguntzarekin. Ikusteko dago Espainiako Gobernuak zer egiten duen 2003ko aurrekontuen legearekin, helegite bat jartzeko aukera aztertzen ari baitzen eta datozen egunetan horren berri izango dela iragarri baitu. Oraingo epaia eskilara luze bateko beste maila bat baino ez da. Gehiago etorriko dira.



Iazko Aurrekontu Legearen bozketaren emaitzak.

Raxoi eta Michavilla zigor kode berriaren aurkezpenean.



Eskuinaren globalizazioa

1995. urtean onetsitako Zigor Kodearen erreforma onartuko du gaur Espainiako Ministroen Kontseiluak, araudi hori gehiago zorrozteko xedez.

Jose Maria Aznarren gobernuak «kaleak garbitzeko» aitzakiaren egin duen lege aldaketak etorkinak eta delitu egile txikiak gehiago zigortzea du helburu.

Gizarteko talde baztertuenen kontrako neurri murriztaile horiek ez dira berriak Europan eta ez Euskal Herrian, eta Europako Batasunean nagusi diren eskuineko gobernuak arlo sozialean duten sentsibiltate eza agertu besterik ez dute egiten.

Izan ere, Espainiak onartuko duen Zigor Kodearen erreforma Frantziako Gobernuak esku artean duen lege egitasmoaren ildo berean doa: delitu txikien kontra gogotik egitea eta etorkinen aurkako neurriak zorroztea ageri-

koak dira Parisek eta Madrilek prestatutako testuetan.

Zigor Kodeen aldaketak segurtasun ezaren mamua era manikeistaz baliatuta bultzatu ditu eskuinak. «Pobreen aurkako gerra deklarazio» horrek —Bruno Le Roux PSko diputatuaren hitzak erabilita— ez dio heltzen benetako arazoari: mundu mailan pentsamendu bakarraren eta globalizazio ekonomikoaren hedapena eragiten ari den desberdintasun sozial gero eta handiagoei aurre egiteari, hain zuzen.